

# KONTZERTUAK HM Txokoan

# Udazkeneko kontzertua

2007ko urriaren 6an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

## IRUÑEKO GAITEROAK

Gaurko "Iruñako Gaiteroak" taldearen historia Javier eta Fernando Lakunza anaiekin hasi zen 1963an. Garai hartan erosi zuten aurreneko dultzaina Mungiako Amezaga auzoko Aldarro baserriko Damaso Menayari eta Lizarrako Moises Elizagari erositako gaitekin ikasten hasi ziren. Taldearen estre-naldi ofiziala 1966ko Iruñako San Ferminetan gertatu zen, J. R. Barea danbor-

rarekin ari zelarik. Esparru ezberdinetan landu eta jorratu dute gaita: Tresna, jole eta musikaren ikerketa eta informazio bilketa, gaitero gisa, gaita hezkuntza, gaitak egiten, musika egileak,....

Gaitero, gaita eta beren musika ikerketa eta bilketa esparruan lan ezberdinak argitaratu dituzte:

- "Julian Romano Ugarte (1831-1899) Aproximación a su vida y obra musical (3 tomo)" (1990).

- "Aportaciones para un repertorio de música de gaita navarra" (1976-1980).

Honekin batera aipatzekoa da Txanbelari buruz argitaratu zituzten lanak:

- "Caubet Chubuko Arhan: txanbela eta khantoriak (I)". (1977).

- "Caubet Chubuko Arhan: Txanbela eta khantoriak (II)". (1977)

- Pierre Caubeten etxean egindako hots grabaketa disko LPan argitaratutakoa. "CAUBET CHUBUKO ARHAN: Txanbela bezala ari da khantatzen". (1978).

Gaita irakasle gisa besteak beste honakoak:

- "Método de Gaita Navarra". (1968).

- "Método Elemental de Gaita / Gaita Oinarrizko Ikasbidea (3 tomo)". (1995).

1966an Iruñan hasi eta geroztik Euskal Herriko herri askotan aritu dira mota guztietako festa eta ospakizunetan bere musika eskaintzen. Euskal Herrikan kanpo ere dagoeneko ibilbide luze eta zabal egin dute.

Zuzenean jotzeaz gain grabazio ugari egin dute bakarka edo beste musikariek. Bakarka egindakoen artean aipatzekoak:

- "Iruñeko Gaiteroak - 1924". (1980)

- "Otsagiko dantzak". (1981)



- "Julián Romano por segunda vez". (1.983)

Beste taldeekin egindakoen artean aipatzekoa da Oskori taldearena, la talde honen sorreratik zuzeneko emanaldi eta disko grabaketa gehienetan parte hartu dute taldeko partaide bala.

Oso garrantzitsua Euskal Herriko dantza talde askorekin eta Euskal Dantzarien Biltzarrekin izandako harremana. 1966an Fernando eta Javierrek gaita egiteari ekin zioten,. Garai hartako gaitero asko izan ziren hauek egindako tresnekin jotzen hasi zirenak. Gaur egun txanbelak ere egiten dituzte.

Billboko beren etxean hasi ziren 1965 inguruan inguruzten zirenei erakusten. Etxetik kanpo lehen eskola Iruñako Oberena elkartearen egoitzan antolatu zuten 1970-71 ikasturtean.

Musika egile bezala Monteagudoko dantzak, fandangoak, arin-arin, martxak, baltsak eta bestelako hamaika pieza berriak egin dituzte.

### KONTZERTUAREN EGITARAUA

Salida de Toriles.	<i>Tradicionala Gareskoa</i>
Chotis nº 1	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Polka	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Mazurca	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Vals con variaciones	<i>Perez anaiak</i>
Rigodón 17	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Caprichos para Dulzainas	<i>T. Manso-J. Romano</i>
Sonatas nº 3,4,5,13 y 16	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Duetino	<i>James Hook</i>
Beti Aurrera	<i>G. Butrón</i>
A Navarra. Jota	<i>A. Brull</i>

# ANTONI MARÍ ETA JOSEP MARIA CARDONA

(Eivissa)

Bi musikari hauek Eivissan jaio ziren 1978an eta majisteritzan daude diplomaturik. Biek hasi zuten beren ibilbidea 1987an, "Colla de Sa Bodega" taldean dantzari eta musikari bezala, jaialdi askotan parte hartuz. Biak ere "Sonades d'Eivissa i Formentera a l'escola" liburuaren egileak dira. Gaur egun irakaskuntzan egiten dute lan eta aldi berean flauta eta Eivissako danborra erakusten dituzte.



Kontzertu honetan Eivissako musikaren erakusketa egingo dute, alde instrumentalenaren ikuspegitik, hiru zuloko flauta, danborra, *castanyoles* eta *txeremia* erabiliz. Errepertorioan Eivissa eta Formenterako doinu herrikoiak, egile ezagunarenak, mezetakoak eta *txeremiako* doinuak izango dira:

- *Sonades de Baile: Sa curta, Sa llarga, Ses nou Rodades.*

- *Sonades de Autor: Sa Calera, Sonades den Micolau, Es trenquet de n'Esquerrer, Sa nineta, Es figueral, Es Jugaroll, s'Agustinera,...*

- *Sonades de misa: Al cel, s'alça a Deu, Oh Maria, Maria que guapa estàs, es Pas de Maria...*

- *Sonades de Txeremia.*

Udazkeneko kontzertua HM Txokoan

## AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



Kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE  
ERGOIENGO AUZO  
ELKARTEA



Govern de les Illes Balears  
Conselleria d'Educació i Cultura



CONSORCI  
FUNDAMENT DE LA LLINGUA  
CATALANA I LA PROJECCIÓ  
EXTERRA D' LA CULTURA  
DE LES ILLES BALEARS